



LEGEZKOTASUN-TXOSTENA, BALIABIDEAK BANATZEKO ETA FORU-ALDUNDIEK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTUAK FINANTZATZEKO EGIN BEHARREKO EKARPENAK ZEHAZTEKO 2022-2026 ALDIAN APLIKATUKO DEN METODOLOGIAREN LEGE-AURREPROIEKTUARI BURUZKOA.

87/2021 IL - DDLCN

I. AURREKARIAK.

Ekonomia eta Ogasun Saileko Aholkularitza Juridikoak legezkotasun-txostena eskatu du baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiaren lege-aurreproiektuari buruz (aurrerantzean, "Aurreproiektua").

Legezkotasun-txosten hau egiteko eskaerarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu zen:

1. "Baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiaren lege-aurreproiektua"-ren proposamena. **Txosten honen xedea.**
2. Ziurtagiria, 2021eko uztailaren 16koa, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren aktarena; horren bidez, baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologia onartzen da.
3. Ekonomia eta Ogasun Saileko Aholkularitza Juridikoaren txosten juridikoa, txosten honen xede den araua egiteko prozedura elektronikoa bideratzeaz arduratzen den Erakunde Baliabideen Zuzendaritzak eskatuta emana.
4. Erakunde Baliabideen zuzendariak egindako lege-aurreproiektuaren memoria.
5. Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren agindua, aurreproiektua aldeztetik onartzeko.
6. Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren Agindua, lege-aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera ematen diona.
7. Akordio-proposamena, Jaurlaritzaren Kontseiluarena, lege-proiektua onartzeko dena.

Txosten hau egin da Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.a) artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 11.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bi artikuluko horiek Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.i) artikuluekin eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 15.1.a) artikuluekin lotuta daude.

I. AURREPROIEKTUAREN XEDEA, AURREKARIAK ETA DESKRIBAPENA ETA IRISMENA

Txosten honetan aztertzen da "baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldirian aplikatuko den metodologiaren lege-aurreproiektua" izeneko espedientean jasotako proposamena.

Arau berri horrek isilbidez indargabetuko luke martxoaren 23ko 2/2007 Legea, baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldirian aplikatuko den metodologiari buruzkoa.

Aurreproiektuaren azalpen-zatiak horren beharra justifikatzen du, banaketa-metodologia berri bat behar delako, eta berria aurrekotik bereizten da bere egiturari, baliabideak bertikalki eta horizontalki banatzeko barne-eredua zehazten duten elementuak argi eta garbi identifikatzeko helburuarekin.

Aurreproiektuak azalpen-zatia eta eranskin bat ditu. Eranskin horretan, metodologia berria onartzen duen Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren 2021eko uztailaren 15eko bilkuran onartutako erabakia jasotzen da. Erabaki horrek VI kapitulu ditu, eta horietan 32 artikuluko, sei xedapen gehigarri eta azken xedapen bat daude.

Azkenik, txosten honen irismenari dagokionez, aztergai dugun proiektuaren aurretik egin ziren legezkotasunari buruzko txostenetan adierazitakoari eutsi behar diogu (horri dagokionez, 009/07 IL Erref. Txostena). Beraz, azpimarratu behar da txosten honen irismena Aurreproiektua lantzean formari eta prozedurari dagokienez erregulartasuna soilik egiaztatzen mugatzen dela, eta ez da inola ere inolako azterketa edo kontrolik egingo aurreproiektuaren funtsezko edukari dagokionez, hau da, txosten honen irismenetik kanpo geratuko dira Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak hartutako Erabakian jasotako gai ekonomikoak, kontabilitatekoak, kuantitatiboak edo matematikoak, eta muga hori hurrengo atalean aipatuko diren lege-xedapenetan jasotakoaren adierazpide izango da.

II. ARAU-ESPARRUA ETA ESKUMENA.

Arau-esparrua

Aztertzen ari garen aurreproiektuaren arau-esparrua aipatzerakoan, funtsezkoa da abenduaren 18ko 3/7979 Lege Organikoaren (aurrerantzean, "Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua") eta azaroaren 25eko 27/1983 Legearen (Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremani buruzkoa) honako xedapen hauek aipatzea:

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 42.a) artikulua:

Euskal Herriko ogasun orokorraren sarrerek honako hauek izango dira:

a) *Foru-aldundiek egin ditzaten ekarpenak, lurralde historikoek Euskal Herriaren aurrekontu-gastuetarako emandako laguntza direnak. **Eusko Legebiltzarraren lege batek finkatuko ditu banaketa zuzenerako irizpideak eta, irizpideon arabera, lurralde historiko bakoitzaren ekarpenak adostu eta gauzatzeko erabiliko den prozedura.** (Letra lodia gurea da).*

Lurralde Historikoen Legearen 16., 22. eta 29. artikulua:

16. atala

Kondaira-Lurraldeek, heuren bere gain hartu gabeko Euskal Herri Osoko zorpide guztiei erantzuteko laguntza emango dute; horretarako, Foru-Diputazioek Lege honetan

agindutakoaren arauerako ekarketak egingo dizkiote Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiari.

22. atala

Foru-Diputazioek egin beharreko ekarketen zehaztapena honako oinarri-irizpide hauen arauera egingo da:

Lehenengoa.– Aurreko 20garren Atalak dioenez banatu beharreko eskuarteen banakuntza, eta Lurralde bakoitzak horretarako ekarri beharrekoen zehaztapena Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluan erabakiko da, Lege honetan jartzen diren bideez baliatuz.

Bigarrena.– Eskuarte hoi banakuntza, indarrean dagoen lege-erabidetzaren arauera Bateango Erakundearen eta Kondaira-Lurraldeetako Foru-Erakundearen jaurgopeko izan daitezen agintepide eta/edo zerbitzuen eretzean egingo da.

Hirugarrena.– Jaurlaritzari, bere agintepeko zerbitzuegatik egin dakion eskuarte-izendapenez gainera, ekonomia-egitamiketa, suztapen eta, hazkunde-politikabideak, irabazpideak eta aberastasuna Euskal Herrian norbanakoen eta lurraldeen artean eskualdeka eta alorka birbanatzekoak eta, orohar, Autonomia-Elkartearen politikazko eta ekonomiazko dendua bermatzeko xedezko neurriak jartzeko une bakoitzean egoki eritzitako diruizendapena egingo zaio.

Laugarrena.– Kontseiluak ikusi ditzakeen behin-behingo salbuespenen kaltetan gabe, diruegitamuak behar hainbatekoak izatetik abiatuz biztanleko orotariko eta batz-bestekeo agizko gastua berdintasunaren eta elkartasunaren arauerakoa izan dedineko politika bat ardietsarazi dezaten irizpideak eta neurriak erabiliko dira.

Bosgarrena.– Zergalaritza-eginahala indartu eta bai Bateango Erakundeetan bai Foru-Erakundeetan agizko gastuen hazkundera zabaltzeko xedezko irizpideak erabiliko dira.

Seigarrena.– Foru-Diputazioen ekarketa, funtsean, Kondaira-Lurralde bakoitzeko urte-irabaziaren heinean zehaztuko da. Halaber, Kondaira-Lurralde bakoitzaren zergalaritza-eginahalaren eta Autonomia-Elkarte Osoko batz-bestekeoaren arteko heinaren alderantzizkoa nahitaez kontutan izango da.

Zergalaritza-eginahala, udalek artez lakatzen dituztenak barne, zergapide guztietatik bildutakoaren eta urte bereko irabazien arteko heinaren ispilu izango da.

Zazpigarrena.– Kontseiluak, hala ere, 20garren Atalaren 2garren zatian ohartemandakoaren kaltetan gabe kontutan izango du, dagokiokeen eran, zati horren gai diren dirueskuraketen zenbatekoa, Itunearen eraentzatikako irabazien banakuntzan ahalik eta eginkortasunik haundiena lortzeko eta Atal horrek dakartzan irizpideak erabiltzeko xedez.



Zortzigarrena.– Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak, eskuarteen banakuntzarako eta Kondaira-Lurralde bakoitzak Autonomia-Elkartearen diruegitamu-gastutarako egin beharreko ekarketak zehazteko hiru ekonomia-urtetarako gutxienez indarrean egongo den araupidetza ontzat emango du, Kontseiluaren iritziz indarraldi hori urtebetera edo bi urtetara mugatzea aholkugarri egin dezaten zernolakoak izatea gertatzen bada salbu.

Jaurlaritzak, lehen esandako eta Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak ontzat emandako araupidetza barne izan dezan Lege-Egitasmoa bidaliko dio Legebiltzarrari, horren onarpen-eske. Egitasmo hori Atal bakarreko Lege gisakoa izango da, eta Lege honen 29garren Atalean oharmandako jaurpideez heuzuz baliatuz onartuko da.

29. atala

1.– Urte bakoitzeko urriaren lehenengo hamabost egutegi-egunen gehienerako epearen barruan, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak Foru-Diputazioek Autonomia-Elkartearen diruegitamu gastutarako hurrengo ekonomia-urtean egin beharreko ekarketak xedatu eta horretazko erabakia Eusko Legebiltzarrari bidaliko dio, atal bakarreko Lege-Egitasmo gisa, Kontseiluaren erizpena erantsiz.

Legebiltzarrak egitasmoa osoarekiko eztabaidaketaren eta boto-ematearen bidez onartuko edo gaitzetsiko du, inolako zuzenketa-eskerik egiterik ez dagoela.

Legebiltzarrak Egitasmoari uko egitea gertatuz gero, atzera Jaurlaritzari bidaliko dio, bere bat ez etortzearen zioak adieraziz, atzera itzultze hori egindako egunetik hasi eta hurrengo hamabost egunen barruan eta bat ez etortzea kontutan izanik, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluan bigarren eta behin-betiko Lege-Egitasmo bat egin dedin, eta hori onartzeko Legebiltzarrari bidaliko zaio.

2.– Atal honen lehenengo zatian jarritako epearen barruan Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren barruan iritzi-batasun batera iristerik ez badago, Legebiltzarrari horretazko argipide-txostena bidaliko zaio, kontseilukideen jarreraren zioak adieraziz.

Legebiltzarrak iritzi ezberdinen gai diren arazoak erabaki eta, bidebatez, eta hoietan bat etorritako alderdiak baldin badaude, hoiek osoarekiko eztabaidaketaren eta boto-ematearen bidez onartuko edo gaitzetsiko ditu, uko egitea gertatuz gero aurreko lehenengo zatian hori gertatuz gerorako oharmandakoa egiten dela.

3.– Jaurlaritzak eta Foru-Diputazioek, Kondaira-Lurraldeen ekarketetarako Eusko Legebiltzarrak esandako bideak eginda ontzat emandakoak sartuz egingo dituzte bakoitzak bere diruegitamuak.

4.– Lege honen 22garren Atalaren lehenengoaren 6garren zatiak dioen Legea iadanik onartuta egotea gertatuz gero, Atal honen lehenengoan eta 2garrenean oharmandakoa

bete beharrik ez da izango, eta Jaurlaritzaren eta Foru-Diputazioen Diruegitamuak Lege hori erabiltzetik atera daitezzen ekarketak jarriaz egin ahal izango dira.

5.– Euskal Herriko Guztizko Diruegitamuen indarraldia luzatzeak, bere aldetik, Foru-Diputazioek azken ekonomia-urtean Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiari egin behar zizkioten ekarketen lehengo zenbateko eta epe-muga eta guztizko indarraldia ere luzatzea ekarriko du eta, hori, Diruegitamu berriak onartu daitezenean hoietan dauden ekarketak indarrean jarri, eta hala egokituz gero batetik besterainoko aldeagatikako kontu-garbitasunak egitearen kaltetan gabe.

Eskumen-esparrua

Beharrezkoa da aipatzea Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela erakunde erkideen eta lurralde historikoen arteko harreman ekonomikoek arautuko dituzten ekarpenak arautu eta zehazteko.

Zehatzago esanda, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 9.1.k) artikulua Ekonomia eta Ogasun Sailari (aurreproiektuaren sustatzailea denari) bere egiteko eta jardun-arloen artean honako hau esleitzen dizkio: "*Ekonomia Ituna, Estaturako kupoak eta lurralde historikoen ekarpenak. Transferitu beharreko eskumenak eta/edo zerbitzuak baloratzea, eta Estatuarekiko finantza-fluxuak zehaztea, Gizarte Segurantzaren finantzaketari dagokionez.*"

Beraz, kontuan hartuta Lurralde Historikoen Legearen 22.8 artikulua horrek adierazten duela Jaurlaritzak Legebiltzarrari igorriko diola, hark onar dezan, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak adostutako metodologia jasoko duen lege-proiektua, ondoriozta daiteke, esku artean dugun kasuan, guztiz beteta geratzen dela eskumen-arazoa.

III. EGITEKO PROZEDURA.

Xedapen orokor baten aurrean gaude, eta, beraz, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean ondorio horietarako ezarritakoari jarraitu beharko zaio, “*a priori*”. Aurrekoa gorabehera, aipatutako Legeak 2. artikuluan ezartzen duenez, lege-mailako arauetan (hala nola Lurralde Historikoen Legean) berariazko prozedura bat ezarrita duten xedapen orokorrek prozedura horren arabera egingo dira, 8/2003 Legeak ordezkoko gisa aplikatzeari kalterik egin gabe.

Beraz, aztertzen ari garen kasuan, prozeduraren gaia lantzeari dagokionez, kontuan hartu beharko da Lurralde Historikoen Legeak eta, ordezkoko izaeraz, aipatutako 8/2003 Legeak ezarritakoa.

Horrela, bada, kasu zehatz honetan, elaborazioa egituratzen duen elementu berezi eta funtsezkoa Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren akordioa izatean datza (horri dagokionez, Lurralde Historikoen Legearen 22.8 artikulua), eta akordio hori, txosten honen hasieran adierazi den bezala, aurreproiektua egiteko espedientean behar bezala jasota dago.

Azkenik, xedapen orokorrek egiteko bete behar diren gainerako txostenei eta betekizunei dagokienez, aurreproiektu hau egiteko orduan ematen baitira, errepikapenak saihesteko, Aholkularitza Juridikoaren Txosten Juridikoan adierazitakoari lotu behar gatzaizkio berariaz.

IV. AURREPROIEKTUAREN EDUKIA

Aurreproiektuaren eduki materialari dagokionez, beharrezkoa da berariaz aipatzea prestatze-espedienteari erantsitako Memorian horri buruz jasotakoa, errepikapenak saihesteko.

Nabarmendu behar den gauza bakarra da, bai aipatutako memoria bai aurreproiektua sustatu duen saileko aholkularitza juridikoaren txostenean adierazten den bezala (horri ere lotu behar gatzaizkio), aurreproiektuan jasotako metodologiak eutsi egiten diela orain indargabetuta dagoen martxoaren 23ko 2/2007 Legean jasotako egituraren ildo orokorrei, eta berrikuntza nagusi gisa nabarmendu behar dela V. kapitulu berria, toki-erakundeek zerga itunduetan duten parte-hartzea arautzen duena. Kapitulu horren edukia bat dator toki-erakundeei buruz indarrean dagoen araudiarekin; zehazki, eta duten garrantzi bereziagatik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen

dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea.

Azkenik, txosten honen lehen atalean zehaztutako aurreproiektuaren egiturari dagokionez, nabarmendu behar da bat datorrela Lurralde Historikoen Legearen 22.8 artikulua eskatutakoarekin, bai eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak eta lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak onartzen dituen 1993ko apirilaren 6ko Aginduak eskatutakoarekin ere.

V. ONDORIOA

Azaldutakoa ikusita, ondoriozta daiteke txostena egiten ari gatzaizkion aurreproiektua bat datorrela Lurralde Historikoen Legearen 22.8 artikuluan xedatutakoarekin, eta Legebiltzarrera jo behar dela, izapideek aurrera egin dezaten, aipatutako arauaren 29. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Hauxe da nire txostena, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinen mende jartzen dut.